



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Euskal, euskal... eta koalizio gobernua

osasuna / hiriren lo(r)aldia / harremanak

Ea sartuko ote den Podemos Pedro Sanchezen gobernura. Ea azkenean presidente kirolariak, zortedun galant-robotak, PSOE-Ciudadanos akordioa hobetsiko duen... Iritzi eratzailerek asteak daramatzate txertatzen ideia bat: Europar normalak dira koalizio gobernua eta espainiar politikak ere kultura hori bere egin behar luke. Ezerezaren diskurtsoan erregeen artean erregeenak ere, Euzko Alderdi Jeltzaleak, “akordioak” eta “Euskadi” hitzak behin eta berriz errepikatuz lortu du arrakasta paregabea duela gutxi. Ez du esaldiak osatu beharrik ere izan. Ortuzar hasi denean hitz totelka, “baina... hemen, euskal, euskal...”, publikoa txalo algaraka. Ez dute besterik behar.

Hego Euskal Herriko erakunde autonomikoetan bi koalizio gobernu ditugu. Aldaketaren gobernu Nafarroan eta EAEn... a, bai! PSE-EE Eusko Jaurlaritzan eta foru gobernuetan dago. Zaila da ohartzea ere, baina EAJren gobernu autonomikoen garai osoa kontuan hartuta, koalizio gobernuak nagusi izan dira. EAJren (eta, teoriarik, PSE-EEren...) azken gobernu honen enegarren ateraldian, Osakidetza Osakidetzaaren aurkako epaiketan parte hartu nahi du. “Euskal, euskal” ereduaren defenda-tzaile itsuen artean eskizofrenia kasuak gero eta ohikoago bihurtuko direlakoan nago...


Hego Euskal Herrian ditugun bi koalizio gobernuen izaera erabat ezberdina da. Diferentzia proiektuaren zentzuan dago. Bat, aldaketa proiektu bat du ardatz, urtetako mobilizazio herritarrek exijitua. Besteak, *statu quo*-aren mantentze soilak. Beraz, zein modu daude aldaketa sozial eta politikoen ikuspuntutik, gobernuetan parte hartzeko?

XX. mendearen hasieran, alderdi sozialdemokrata marxistek gero eta babes zabalagoa lortzen zuten heinean, ezta-

baidak piztu ziren: ea gobernu burgesetan parte hartu behar zen edo ez. Ezezkoaren aldekoek, sozialistek gehiengo zabala osatzen zutenean bakarrik gobernatu behar zutela zioten. Estatuaren egituretatik etorkizuneko jendarte sozialistari ateak irekitzea posible zenean bakarrik. Bestela, burgesiarren proiektuan itota geratuko zirela argudiatzen zuten. 1914an, Gerla Handia sostengatzeko sozialista europarrek gobernuetan parte hartu zutenean, horixe bera gertatu zitzairen.

Aldiz, 1945ean, koalizio gobernu zabalek Ongizate Estatuaren oinarriak ezarri zituzten. Hainbestekoa zen ezkerreko indarren onarpen eta prestigio soziala, faxismoa garaitu ostean, ezen eta eskuinak parte hartu behar izan baitzuen aberastasunaren birbanaketa prozesu zabal hartan.

Nahi eta nahi ez koalizio gobernuak osatu behar direla, edo, berez, gobernuetan parte hartzea ona dela diotenek, kontuan hartu beharko lukete aldaketarako aukera, indar ezkertiarren eta beren ideien prestigio sozialak eta babes herritar publiko eta esplizitu batek bakarrik ziurtatzen dutela. Eraldaketa alderdi egoera politikoko-sozial batean, hori argi ikusi zuen eskuinak, eta, 1970eko hamarkada bukaeran, komunistak gobernuetan sartzea ekidin zuen Italian eta Espainian. Alderdi egoera sozial argi baten faltan, eskuinaren lidergoaren menpean koalizio gobernuak guztiz urtuta geratzeko aukera handiak daude. Indar politikoko eraldatzaileek gobernuetan parte hartzea aztertzerakoan, iruditzen zait erreferentzia historikoak oso presente eduki behar direla. •



Irudia: Jonbi EGURZEGI